

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Gure zerbitzu berritzailea aurkezteko, ezinbestekoa zaigu hau ezagutarazteko bide ezberdinetatik abiatzea. Horretarako, publizitate kanpaina abian jarriko dugu, iragarki bat sortuz, Goierriko herri ezberdinetan kartelak jarriz, sare sozialetan (Instagram, Facebook eta Twitter) bideoak eta irudiak publikatuz eta egunkari ezberdinetan gure zerbitzuari buruzko informazioa emanez.

Gure zerbitzuarekiko interesa piztu zaien familiek, publizitate kanpainetan agertuko den telefono edo emailera mezu bat bidali beharko dute gure zerbitzuarekin harremanetan jartzeko. Ondoren, ate irekietan, hau da, ekainaren 4tik 10era bitartean familiek gure espazioa ezagutzeko aukera izango dute, baita zerbitzuaren nondik norakoa jakiteko ere. Zerbitzuarekiko jakinmina adierazi duten familiekin, hitzordu indibidual bat zehaztuko dugu, familia eta lan taldea ezagutzeko helburuarekin, baita erabiltzaile bakoitzaren gaitasunak ezagutzeko ere. Hau, ate irekien egunean, korreo elektronikoz zein telefonoz adostuko da eta bileran ezagututakoa, aurrerago egingo ditugun dinamika ezberdinen antolaketa errazteko baliagarria izango zaigu.

Lehenengo kontaktu hau, sarrera egokitua duen eta udaletxeak eskuragarri jartzen digun udaletxeko bulego batean egingo da. Bertan, zerbitzuaren nondik norakoa azaldu eta izen ematea egingo da. Interesa duten familiekin hitz egin ondoren, haur bakoitzaren indargune eta gaitasunak erregistro orri baten arabera baloratuko ditugu eta horri esker, kurtsoan zehar gauzatuko ditugun ekintza ezberdinak planifikatzeari ekingo diogu.